

Uharte Garazi

Aurkibidea

Udalerria: Uharte Garazi

Sarrera



Garazi eskualdean dagoen herria da Uharte Garazi. Azkarate eta Izpura herriak ditu iparraldean, Lasa mendebaldean, Arnegi hegoaldean eta Eiheralarre eta Donibane Garazi ekialdean.

- **Biztanleak:** 702
- **Euskaldunak:** %79,61

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **18**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**

- Bideoak: **18**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- IKER taldea

Hizlariak

Flontxa Harispe (1928)



Flontxa Aizpuruan sortu zen, Uharte-Garazin, 1928ko azaroaren 27an. Aita itzaina zuen lehen ardiak erosi aitzin. Flontxa 1952an ezkondu zen eta aitaren segida hartu zuen, etxaldeak urte hartan 80 ardi zeuzkala. Etxe inguruko pentzeak eskas izanez, bazkak afermatzen zituzten, neguan beherean, udan Iratiko Uhartepen, Frantzia eta Espainiaren mugan. Flontxaren aita udak Uhartepen pasatzen zituen artzain; geroztik senarrak eta semeak ildo beretik segitu dute. Orbaizetako artzainekilako harremanak egunerokoak ziren eta oso onak, nolaz ez, batzuen eta besteen ardiak bazka berdinetan zebiltzan eta. Flontxak ere bortuko bizi hori ezagutu du.

UHG-001 Hizlari ezezaguna (1930)

UHG-002 Hizlari ezezaguna (1930)

UHG-003 Hizlari ezezaguna (1930)

UHG-004 Hizlari ezezaguna (1930)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskola Uharte-Garazin 1930. hamarkadan (UHG-005/001)

Baxenabarreko ainitz herrietan eskolak baziren ere auzoetan, hala nola Uharte-Garazin. 1928an sortua den Flontxa Harispek lehenik gaineko eskola segitu du eta, ondotik, beherekoa (herriko plazan zegoena). Bi eskola baziren behean, mutikoena eta neskena.

2. Itzainaren lana (UHG-005/002)

XX.mendearen lehen zatian, itzainaren lana frango hedatua zen. Flontxa Harispen aita itzaina zen ardiekin hasi aitzin. Behi putak bazituen eta zura karreatzen aritzen zen.

3. Biziaren dorpea Uharte-Garazin (1850-1950) (UHG-005/003)

Florentxa Harisperi bere amatxik kondatzen zion gizonak etxeetan mahasti aitzurrean ari zirela bi sos egunean irabazteko eta haurrek arto axalak ahatxei (xahalei) eramaterakoan, erdia berek bidean jaten zutela. Florentxak berak bizi dorpea ukan du.

4. Ardi hazkuntza 1930-1940 hamarkadetan Uharte-Garazin (UHG-005/004)

Berrogoi ta hamar ardi baziren bana beste, garai hartan, etxe bakoitzean eta 7-8 behi. 1930. hamarkadan, Flontxaren aita 25 ardirekin hasi zen eta gero artaldea emendatu zuen. Etxaldean berean, pentzez zuhur izanez (8 ha), neguan ardiak bazkaz igortzen zituzten Amikuze aldera.

5. Etxolaren egitea bortuan (UHG-005/005)

Bortuan beren artzaina duten etxaldeak beharrezkoa dute etxola. Uharte-Garaziko Aixpurukoek (Flontxaren sortetxea) etxola eraiki nahi izan zutenean, behi pare batekin beheretik harri karreun arizan ziren. Artzain bat ezarri zuten etxolan eta bi urteren buruan etxeko nagusiak berak kanpoko artzainaren tokia hartu zuen.

6. Astoa, artzainaren janari eramaile (UHG-005/006)

Artzainari bere janaria (besteak beste ogi eta arto irina) astoz eramaten zioten, kakoletan, bi astetarik. Gibelera tekoan aldiz gasnak ekartzen zituzten (eta ardi ilea ere). Zazpi oren joateko, beste hainbeste jiteko behar zituen Flontxak bortuko itzulua egiteko. Aixpuruan, batzutan kartierreko 3 astoak erabiltzen zituzten.

7. Artzainaren janaria (UHG-005/007)

Artzainari bortura helarazten zioten janarian baziren besteak beste, arto eta ogi irinaz aparte (kilo bat), ogia, lamason bat arno, xingarra, lur sagarrak.

8. Alhabidea (UHG-005/008)

Aixpuruko alhabidea Uhartepen kokatzen da, Espainiaren eta Frantziaren artean. Alhabidearen mugak errespetatu behar dira eta Espainia aldera egunaz igortzen diren ardiak arrats guzietan bildu.

9. Alhabidearen pagamendua : akitea (UHG-005/009)

Akiteak ematen zuen Espainia aldeko bazketara joateko eskubidea. Garaziko artzainek Arnegiko bulegoan egiten zuten akitea. Orai ez da gehiago akiterik. Bazka guziak Garaziko sindikatari ordaintzen dira.

10. Orbaizetako artzain batzuen izenak (UHG-005/010)

Uhartepen zeuden garaztar artzainen arabera (Flontxa Harispe), 6-7 artzain baziren inguru heietan Orbaizetatik : horietan Merinotiarrak, Zakutotiarrak, Kondderetiarrak. Orai bat bakarrik gelditzen da.

11. Uhartepeko artzainak (UHG-005/011)

Hiru garaztar artzain izan dira betidanik Uhartepen ; segitzen dute gaurregun.

12. Orbaizetako eta Garaziko artzainen elkarretaratze guneak (UHG-005/012)

Egunean zehar, etxoletan gurutzatzen ziren Garaziko eta Orbaizetako artzainak eta urtean zehar, Donibane-Garaziko merkatuan. Garaztarrak ibiltzen ziren ere Orbaizetako bestetan.

13. Bortuko beste kabalak (UHG-005/013)

Behi eta zaldi frango ibiltzen dira bortuan, mugaz bi aldetatik datoz. Egurgin badira Orbaizetako behiak. Lehengo artzainak behizainak ere ziren (beren etxeko edo beste etxe bateko behiak zaintzen zituzten).

14. Emazteak bortuan (UHG-005/014)

Garaztar emazteak baziren eta badira beti bortuan. Flontxa Harispe ez da oroit Orbaizetako emazterik ikusirik bortuan. Bera ere egon da, semea etxean ezkondu denetik, bortuan uda guzian senarrarekin.

15. Kontrabanda (UHG-005/015)

Behi eta zaldi kontrabanda egiten zen Uharte Garazitik Luzaidera. Bigarren gerla garaian, arropak ere pasatzen ziren. Beharrezkoa zen bizitzeko.

16. Ardi gasnaren egitea (UHG-005/016)

Flontxa Harispek gasna egitea esplikatzen du : berotzea, gatzagia ezartzea, biltzea, xortxean ezartzea, tinkatzea, biharamunean gazitzea eta gorritzea. Hiru kiloko gasnak egiten zituzten.

17. Gasna onaren segetu zenbait (UHG-005/017)

Gasnak ona izaiteko, hona beharrezko baldintza batzu : esnea garbia izatea, deitzaldi oro gasna egitea, egin ondotik ontsa segitzea (bi egunetarik itzuli, gaxuran garbitu etabar).

18. Ardi moxtea (UHG-005/018)

Ardi moxtea bortuan edo beherean egiten zen, udan. Aixpurukoek bortuan egiten zuten, etxeko etxeko (ez ziren okasione hortan beste artzainekin gurutzatzen).

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com